

Udal Informazio Aldizkaria

Ezkabarte



33 Zenbakia
2011eko otsaila

EGUBERRIETAKO EGITARAUAK IBARREKO HAUR ETA GAZTEEN PARTE- HARTZE HANDIA IZAN ZUEN

Egitaraua Sorauenen abiatu zen Ezkabarteko Abesbatzaren kontzertuarekin eta Arren eta Makirriainen jarraitu zuen Olentzeroren bisitarekin. Aurten berrikuntza haurrentzako doako 3 tailerrak izan dira, zeinek itxaron guztiak bete baitzituzten. Erregeen desfileak ere parte-hartze handia izan zuen, urtarrilaren 5ean. Arre eta Azotzek lau karroza izan zituzten bisitan (jaiotza, erregeak eta morroiak, elur panpina argitsua eta Miky Mouseren gaztelua) eta erregeek Zildotz, Orrio, Makirriain, Eusa, Sorauenen eta Orikin ere bisitatu zituzten, non haurrei opariak berek eman baitzizkieten.



2011rako helburuak

Udal honi legealdia 2007. urtean hasiriko legegintzaldia krisiaren ondoriozko baliabide ekonomiko eskasekin eta zenbait gastu berriekin -Udal Kiroldegiaren mantentzea adibidez- zuzentzea tokatu zaio. Hala ere, hasieratik lan egin du aurrekontuak doitu eta Udalaren ekonomiari eusten laguntzeko aldaketak eginez eta hori egin ahal izan da Nafarroako Gobernuaren, ibarreko kontzejuen, enpresen eta auzokoen laguntzari eta udal langileen ahaleginari esker.

Hauek dira 2011rako asmoetako batzuk:

- Udalak hiritarrei ematen dizkien zerbitzuak hobetu eta irauaraztea.
- Zerbitzu berriak sortzea, administrazio elektronikoa esaterako.
- Lau urteko planeko obrak ahal den neurrian eta aurrekontu saila dutenak gauzatzea.
- Hainbat kultur, kirol eta aisia jardueratarako diru-laguntzak ematea, baita egoera ekonomiko zailtan diren pertsona edo familientzako laguntzak ere.
- Ibarreko beharretara etengabe egokitzea, kontzejuekin eta gainerako erakunde publikoekin elkarlanean.
- Sorauenen eta Zildotzen babeseko etxebizitzak egitea sustatzea.

2011n egiteko obrak

Arren

Kontsultategi mediko berria San Román plazan.

Zubi zaharra zaharbertitzeko II. fasea.

Orikainen

Kalea zolatzea eta sareak berritzea.

Garruesen

Ibilgailuak herrira sartzeko bidearen asfaltoa berritzea.

Azotzen

Oinezkoentzako zaldaina (ibilgailuak sartzeko zubiarekiko paraleloan) eta Udal Kiroldegirainoko espaloia egitea.

BIDE PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASAK 2011RAKO GUTXITU DIRA

Joan den abenduaren 2an Udalak herriko jabetza publikoko zoruari, hegalkinean eta zorupean egiten diren aprobetxamendu berezien tasak arautzen dituen ordenantza fiskaleko tarifa berriak onetsi zituen. Aldamioz, hesiz, edukiontziz, e.a. okupatzea, esate baterako, urtean metro karratuko 59,12 € izatetik 12,00 € izatera pasatu da. Mahaiak, aulkiak eta mahaitxoaren kasuan metro karratuko eta urteko 22,20 €-tik 12,00 €-ra pasatu da. Bide publikoaren bestelako okupazioak (poligonoak) metro karratuko eta urteko 22,24 €-tik 12,00 €-ra pasatu dira.



ARREKO ZUBI ZAHARREKO OBRAK

2010en bukaeran eta urte hasieran zubi zahararen zoladura zaharberritu egin da, egoera txarrean zegoen hormigoia kenduz eta hormigoi uharriduna, ur parkeko bidekoaren antzekoa, jarritz. Bidenabar, etorkizuneko argiztapenerako tutuak pasatu dira.



DIRULAGUNTZAK

Udalak aurrekontua aldatu du oraingo garaietara egokitzeko, "Ezkabarte obra soziala" izeneko kontu-saila da horren adibide, haren bitartez familia behartsuei laguntza emanen baitzaie, besteak beste.

Kontzejuek beren artean 14.000 € banatuko dituzte festetarako, San Román Gizarte Etxeak 4.800 € jasoko ditu, Ezkabarteko abesbatzak 2.400 €, Euskararen Sustapenak 1.550 €, musika eskoletako ikasleek 16.000 € banatuko dituzte beren artean. Arreko Erretiratuen Elkarteak 3.865 € eta Atarrabiakoak 1.370 € jasoko dituzte. Avance Ezkabarte K.E.-ak 5.980 €, Arre/Makirriain Olentzerok 1.530 €.

KIROL JARDUERAK

BETE GABEKO TOKIAK

HIRUGARREN ADINEKO GIMNASIA

Erroldatuek 60 €, astearte eta ostegunetan 9:30etik 10:30era Arreko erabilera anitzeko aretoan.

YOGA

Erroldatuek 60 €, asteazkenetan 19:00etatik 21:00etara Arreko erabilera anitzeko aretoan.

AEROBICA

Erroldatuek 60 €, astearte eta ostegunetan 20:30etik 21:30era Arreko erabilera anitzeko aretoan.

PILATESA

Erroldatuek 76 €, astearte eta ostegunetan 17:30etik 18:30era edo 18:30etik 19:30era udal kiroldegian.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Erroldatuek 60 €, 4 eta 7 urte bitarteko NESKATOAK, asteazkenetan 17:30etik 19:00etara. 8 urtetik gorako NESKATOAK, asteazkenetan 17:00etatik 18:30era eta ostiraletan 17:30etik 19:00etara udal kiroldegian.


Izen ematea Udal Kiroldegian
948 33 07 58.

Jardueran berehala hasiko dira.

2011ko AURREKONTUAK


GASTUAK

1.585.000,00 €



DIRU-SARRERAK

1.609.500,00 €



Udalak kalte-ordaineko 30.000 € kobratu ditu Kiroldegiko akatsengatik

Kiroldegia jardanean hasi zenetik hutsune batzuk hauteman ziren eta horregatik agindu zen adituen txostena, zeuden arazoak ebaluatu eta arrazoiak eta egin zitezkeen konponketak zehazteko. Horren ondorioen arabera, proiektuaren egileei eta obren zuzendariei (zuzendaritza profesionala eta teknikoa) galdatu zitzairen **arrapalaren estalduratiko itogin eta iragazpenei, terrazatiko itogin eta iragazpenei, pareta eta zoruetan aurkituriko hezetasunei eta esparruen aireztapen ezegokiari irtenbidea emateko eta tamaina txikiagoko beste zenbait akats konpontzeko** beharreko obra guztiak egin zitzaizten. Errekerimendu horren aurka (27/2010 zenbakiko ebazpena) helegitea aurkeztu zuen zuzendaritza profesionalak. Baina Nafarroako Administrazio Auzitegiak ezetsi zuen Rafael Calderón Alonso, David Gómez Urrutia, Miguel Martínez Larráyoiz eta Francisco Javier Pernaut Salinas arkitekto jaunek jarritako helegitea eta **Udalaren aldeko ebazpena eman zuen**, eta "proiektu-egilea kalitate edo egite txarretik -ezegiteagatik edo akats, metodo ezegoki edo bukaera okerregatik- eratorritako ondorioen erantzulea izan dadila ezartzen du legeak, sistema hau ingeniari zibileko eta arkitekturako obren proiektuen idazketarik hoberena sustatzeko metodorik eraginkorrena eginez" esan.

ARKITEKTOEN ASEGURATZAILEAK (ASEMA) Kiroldegiko obren zuzendaritza profesionalaren ERANTZUKIZUNARI AURRE EGITEKO eskainiriko KALTE-ORDAINAREN ONARPENA

Negoiazio batzuen ondoren, 2010eko abenduaren 2ko osoko bilkuran, arkitektoen Aseguratzailleak eskainiriko kalte-ordaina onartzea erabaki zuen Udaltzat, Alkate andreak 2010eko otsailaren 25ean emaniko 27/2010 zenbakiko ebazpenak deklaraturiko erantzukizunari eta Ezkabarteko Udalak 2010eko uztailaren 5ean eginiko errekerimenduari aurre egiteko (kalte-ordain hori guztira 30.000,00 eurokoa zela adierazi zuen). Udalak konpromisoa hartu zuen gaia, kalte-ordaina kobratuta, kitatu eta bukatutzat jotzeko, aipatu arkitektoen betebeharrak konpontzailea betetzat joz, eta Ezkabarteko Kiroldegian gaur arteko eraikuntza hutsuneengatik beste ezer ez erreklamatzeko.

Zenbatekoa hezetasun arazoak aireztapen egoki batez konpontzeko inbertituko da lehentasunez, baita beste konponketa eta beharretarako ere.

2010eko III. Argazki Lehiaketako irabazleak

Joan den abenduaren 30ean Argazki Lehiaketako epaimahaiak bere epaia eman zuen eta hau izan zen emaitza:

Lehen saria: Fermin Egiluz Lekunberri Petirrojo/Txantxangorri obrarekin.

Bigarren saria: Fernando Pla Larramendi Vigía obrarekin.

Hirugarren saria: M. Lourdes Gorriho Labiano II Trovatore obrarekin.

Argazki irabazleak eta hautaturiko beste batzuk **urtarrilaren 28tik aurrera egonen dira ikusgai Udaltzako Kiroldegiko ezkaratzean.**



Bigarren saria irabazi duen argazkia.

Jaiotzak eta Agurrak

Ongi etorri: Aimar Flores Bohorquez, Carlos Eduardo Hechavarria Huarte, Unai Roncal Martín.

Agur: Javier Reta Izco jn.:

"Ibar honetan Oriain, Azotz, Zildotz, Makirriain eta Olaibarren Zandio eta Otsakain herrietan apaiz-parrokoa izandakoa. Apaiz gisa, bizitza eredu garria izan zuen, eta pertsona gisa, imitatzeko etsenplua, ezen ez dio haren atea mesede materiala edo aholku espirituala eskatzeko jo duen inori huts egin.

Orain dela urte luzea omenaldia egin genion Azozko elizan bere erretiroa zela eta. Ospakizun hartan esan genion, León Felipe poeta parafraseatuz, bera guregandik urruntzen ari zen baina betiko bere distira uzten zigun izarra bezala zela. Gaur ere, izarra gure zerutik desagertu arren, ziurta diezaiokegu D. Javierri bere distira eta oroitzapena betiko geratuko direla herri hauen historian txertaturik.

Milesker D. Javier gurekin zure bizitzako 50 urte emateagatik"

RZ.

2011ko urtarrilaren 4an utzi gintuen 81 urtetan. Azozko eliza mukuru bete zen eta ibarreko auzokoak hartu zituen hileta- elizkizunetarako joan den 23 igandean. Don Rafael, ibarreko aurreko medikuak, oroitzapenezko hitzak (Don Javier eta bera elkar ikusi zuten lehen eta azkenaldiak) eskaini zizkion.

Elur kasurako protokoloa


Herri bakoitzeko auzokoek gatz hartzen ahalko dute beren kontzejutik dohainik beren etxebizitzako sarreran bota ahal izateko. Elurra kentzeko zerbitzuak bide nagusiei eman nahi die lehentasuna. Garrantzitsua da gatzaz abusatu behar ez dela kontuan hartzea, zoladurak hondatzen dituelako, batez ere hormigoiei eta harrizkoak, eta gure ibairako kutsatzailea delako; horregatik aldeztu aurretik eskertu nahi dugu beren etxeko sarrerak garbitzeko pala eta holako tresnak erabiltzea.

Egoera berezi batengatik (gaixotasuna, minusbaliotasuna, haurdunaldia) auzokoren batek Udaltzako bere bizitokiari lehentasuna ematea beharko balu, Udaltzako kontuan hartu ahal izateko denboraz jakinarazteko eskatzen dugu.



TALLERES ITURRALDE

Pol. Ind. Ezkabarte, C/L - N 23 (Arre)
948 36 15 36 - 650 339 612



Neumáticos
Mecánica general
Carrocerías
Limpiezas
Mantenimiento
Transformaciones
Restauraciones

IBARREKO ONDAREAREN AZTERKETA UDALAREN WEB ORRIAN

Udalak Aranzadi Zientzia Elkarteari ibarreko ondare arkitektonikoari buruzko ikerketa bat (Nafarroako Gobernuak diruz lagundua) agindu zion. Lan horretako irudi batzuk bizilagunei banatu zitzaizkien 2011ko egutegian jarri ziren. Orain jada ezagut daiteke lana Udalerriaren www.ezkabarte.eu web orriaren bitartez, **TURISMOA** ataleko **MONUMENTUAK** azpiatalean. 17 fitxatan, elizak, zubiak, etxeak eta jauregiak agertzen ditu Iker Alzolak eta Jose M. Pastorrek eginiko lanak, argazkiak, historia, eraikinaren oraingo egoera, planoak eta bibliografia barne. Bestalde, Aitor Pescadorek Ezkabartek XII – XVI. mendeetan izaniko hastapen historikoez eginiko dokumentua ikusten ahalko da udaletxean.

Alejandro, eski zalea

Alejandro Alzugaray Osta 10 urteko haurra da. Arren bizi da guraso Montse eta Héctorrekin eta anaia Ferminekin. San Cernin ikastetxean ikasten du eta asteburuak Candanchún pasatzen ditu.



Alejandrok Down sindromea dauka eta gurasoek kirolak eta bereziki eskia ezagutzeko aukera eman diote, ezen haiek betidanik egiten dute. Ahaleginez eta adoretz lortu dute Alexek horrenbeste gozatzea non orain zaila suertatzen baita pistetatik ateratzea. Horrenbeste ezen elkarteko norgehiagoketan lehen postuetan nabarmentzen baita.

4 urterekin Alejandrori bihotzeko ebakuntza egin zioten, "pentsatu genuen ez genuela inoiz berriro eskiatuko.

Ez hori ez beste gauza anitz egingen, baina semearen esperientziak gauza batzuk argi utzi dizkit: desgaitasuna duten pertsonak, irmotasunik izanez gero, nahi dutena lor dezaketela. Gehiago kostatuko zaie, baina lor dezakete", gogoratu du amak.

8 urte zituela hasi ziren eski eskolak eta 2 hilabete soilen denboraldiko guztia ikasi zuen. Orain

6 orduz entrenatzen da asteburu orotan elkarteko taldearekin Candanchún eta gero gurasoekin eskiatzen du. Ez zaio hotza pasatzea inporta eta izugarri gozatzen du entrenamenduz. Segurtasunez moldatzen da izotz plakez beteriko aldapetan, entrenatzaileek gurasoak animatzen dituzte, "bere kirol ahalmenagatik, mutil honi etekin osoa atera behar zaio, urrun irits daiteke" eta Candanchúko Eski Elkarteko desgaituen saila, txapeldun nazionala kategorian horretan, aipatzen dute. Talde horretako arduradun Cándido Sáezek argi du. "Oso laster eboluzionatuko duela antzematen zaio". 14 urterekin FEDDIren txapelketa ofizialera aurkezten ahalko da.

Kirol honetan noraino iristea gustatuko litzaiok? Guk hark kirolaz gozatzea nahi dugu. Berak nahi duen tokiraino iritsiko da, erantzun du Montsek.

Musika gustukoa du? Bai, ikastetxeko musika eskolan ikasten du eta perkusioa jotzen ikasten ari da. Dagoeneko kontzertu batzuk eman ditu eskolarekin, esan du aitak. Eta zein beste zaletasun du? Animaliak gustatzen zaizkio anitz, zaldiz ibiltzea, izugarri maite ditu ordenagailuak, argazkilaritza, zinema.



Administrazio Elektronikoa ezarri da Ezkabarteko Udalean

Proiektu honen bidez, Ezkabarteko auzokoentzako zerbitzua hobetu nahi dugu, zeren ohiko izapideak udaltxerara joan gabe eta hortaz denbora aurrerituz egiten ahalko baitituzte. Internetera konektatzea eta NAN elektronikoa aski dira izapide hauek egiteko: ordainagiriaren kontsulta eta ordainketa, norberaren datuen kontsulta eta errolda eta katastroari buruzko kontsultak, besteak beste.

Arkupeak egiteko U.P.ren aldaketa hasiera batez onetsia

Auzokoek arkupeak legalizatu eta interesaturik daudenen, baldintza batzuk betez, egiten ahalko dituzte. Hirigintza arauak eta ordenantzak berak onetsi ondoren sorturiko behar berrietara egokitzea da asmoa, baita alderdi zehatzei dagokienez irizpide aldatetara ere, etxeetan arkupeak eta beirazko itxurak egitea baimentzeko.

Enplegua CAPIn bilatzea

Curriculum idatzi edo enplegua Internet bidez bilatu jada egin daiteke Arreko Kontzejuan kokaturik dagoen Interneterako atzipen publikoko zentroan. CAPIk berriro ireki ditu ateak ordu hauetan:

Astelehenetan arratseko 7etatik 9etara. Asteazken eta ostiraletan arratsaldetik 6etatik 9etara.

Zerbitzua erabat doakoa da. CAPIn inprimagailua dago, baita WIFI ere, beren ordenagailu eramangarria eraman nahi duten lagunak Internetera areto barnetik konektatu ahal izateko.

Autobus geltoki berria Arreko industrialdean

Iruñerriko Mankomunitateak Ezkabarte industrialdean (Arre), Elordi taberna-jatetxearen parean, geltoki berria jartzeko eskaera onartu du, autobusak hortik pasatu behar duela aprobetxatuz.

Kontsultategi berriko obrak hasita



Joan den abenduan Obras y servicios Tex S.L. enpresak, obrak egiteko lehiaketaz egindako adjudikazio-hartzaileak, Udalak eskuraturiko etxabeke obrei ekin zien. Obraren kostua Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren diru-laguntzaz ordainduko da.